

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

10 herrialdetako 80 espezialistak, digestio- aparatuan adituak, kapsula endoskopikoaren teknikari buruz NOGek sustatutako ikastaro batean hartu dute parte

*Azken hamarkadan, Digestio Zerbitzuak mila profesional baino gehiago
trebatu ditu teknika horretan*

Ostirala, 2018.eko otsailak 23

Espainia osoko, Portugalgo, Italiako, Israelgo, Argentinako, Mexikoko, Costa Ricako, Peruko, Kolonbiako eta Txileko gastroenterologiako 80 espezialista inguru parte hartzen ari dira, aste honetan, Nafarroako Ospitalegunek (NOG) kapsula endoskopikoaren erabilerari buruz antolatutako [trebakuntza-ikastaro](#) batean. Digestio-
aparatu gaixotasunak



Mundu guztiko 80 espezialistak kapsula endoskopikoak erabiltzeari buruzko trebakuntza batean hartu dute parte.

diagnostikatzeko eta haiei segimendua egiteko teknika bat da hori, pazienteak irensten duen pilula baten tamainako grabazio-gailu batek ematen dituen irudietan oinarritua.

Ikastaroa joan den asteazkenean inauguratu zen, eta larunbat honetan amaituko da. NOGeko Digestio Zerbitzuko Endoskopien ataleko mediku Ignacio Fernández-Urién doktoreak zuzentzen du. Trebakuntza-saioetara 50 profesional bertaratzen dira, eta gastroenterologiako ospe handiko 24 espezialistak ematen dituzte —batzuk NOGekoak bertakoak dira, eta besteak Nafarroako Unibertsitatea Klinikatik eta Sevillako, Bartzelonako, Valentziako, Tenerifeko, Toledoko, Erromako, Turingo, Oportoko eta Israelgo Ramat Gan hiriko ospitaleetatik datoz—.

Ikastaroak bi modulu bereiz ditu: oinarrizkoa eta aurreratua. Lehenengoa kapsula endoskopikoarekiko enteroskopian hasi, sendotu edo horretara aldatu nahi duten profesionaleri dago zuzenduta. Ikastaro aurreratua, berriz, teknika horretan esperientzia duten profesionaleri dago zuzenduta, kapsula endoskopikoarekin kolonoskopiak irakurtzeko gaitasunak sendotu nahi dituztenei, hain zuzen.

Bi kasuetan, gehienbat praktikoa da programa, eta bertaratuek ordenagailuak dituzte eskura bideoak ikusteko eta aztertzeko. Saio teoriko batzuk ere izan ditu, bertaratuei kapsula endoskopikoaren oinarrizko

alderdiak ezagutzera emateko (historia; noiz erabili behar den eta noiz ez; teknika zer egoeratan dagoen gaur egun, patologia batzuei eta besteei dagokienez; prozedura; eta zer software erabiltzen den).

Teknika ez-inbaditzailea

Kapsula endoskopikoaren helburua da heste meharreko eta koloneko gaixotasun jakin batzuk aztertzea, batez ere jakiteko nondik datozen digestio-hemorragia jakin batzuk, beste teknika batzuekin (gastroskopia eta kolonoskopia) ezin jakin ondoren. Ikusi da, halaber, oso erabilgarria dela beste egoera kliniko batzuetan, hala nola hesteetako hanturazko gaixotasunean (HHG), gaixotasun zeliakoan, sindrome poliposikoetan eta tumore jakin batzuen azterketan.

HHGa gaixotasun kroniko bat da, eta hiru entitate hartzen ditu barnean: kolitis ultzeraduna, kolitis sailkaezina eta Crohn-en gaixotasuna. 100.000 biztanleko 16 kasu izaten dira urtean, gutxi gorabehera, baina haren prebalentzia askoz handiagoa da, gaixotasun kronikoa baita. Europan, 2,5 milioi lagun daude HHGak jota. Nafarroan, 100 kasu inguru diagnostikatzen dira urtean (75-80 bitarte 15 urtetik gorakoan eragin-eremuan, eta hiruzpalau pediatrian). NOGeko HHGaren Unitatean —[ziurtagiri aurreratu](#) bat lortu berri du bere zerbitzuan kalitateagatik—, 1.792 paziente kontrolatzen dira gaur egun.

NOGeko Digestio Zerbitzuak ia 15 urteko esperientzia du kapsula endoskopikoa erabiltzen, eta prototipo berriak garatzera bideratutako zenbait ikerketa eta entsegutan hartu du parte. Prototipo horietako bat da Crohn-en gaixotasuna duten pazienteentzat bereziki sortutako gailua, [ospitaleko jardunean sartu berria](#). Urtean, horrelako 400 froga egiten ditu, eta trebakuntzan ere erreferentziazko lantaldea da, Fernández-Urién eta Oscar Nantes doktoreak buru dituela. Mundu guztiko mila profesional baino gehiago trebatu diren ikastaro eta tailerretan hartu dute parte.

Aste honetako ikastaroaz gain, NOGek aurreikusten du berriazko lau tailer egitea 2018an HHGan kapsula endoskopikoa erabiltzeari buruz (martxoan, ekainean, irailean eta azaroan).